

41. ARTIKULUA

Diagnostiko-ebaluazioa

1. Diagnostiko-ebaluazioak hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren eta ikastetxeen ardura da, biena, eta ikastetxeentzat eta euskal hezkuntza-sistema osoarentzat hobetzeko aukera gisa eta erronka gisa hartu behar dira.
2. Diagnostiko-ebaluazioko prozesuen helburua da ikasleek funtsezko konpetentzietan eta konpetentzia espezifikoetan lortutako maila egiaztatzea, eta irakasle-taldeei, ikasleei, guraso edo legezko tutoreei eta hezkuntza-komunitate osoari laguntzea irakasle-jarduna aztertzen, baloratzen eta, beharrezkoa bada, birbideratzen, ikasleek curriculumeko konpetentziak eta ikaskuntzak lor ditzaten.
3. Diagnostiko-ebaluazioko probak etapen erdian egin behar dira (LHko 4. mailan eta DBHko mailan), zentsu-izaerarekin, eta etapen amaieran (LHko 6. mailan eta DBHko 4. mailan), lagin-izaerarekin.
4. Diagnostiko-ebaluazioetan lortutako informazioa erabiltzean, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoa hartuko da kontuan. Lortzen den informazioa talde, arlo eta ikastetxeen tratamendu estatistikorako erabiliko da. Ebaluazio horiek ezin dira erabili ikas- tetxeen sailkapenak egiteko.
5. Bakarkako, taldeko eta ikastetxeko txosten batean zehaztuko dira proba diagnostikoen emaitzak, beste adierazle batzuetatik lortuta informazioarekin batera. Txostena egiteko, gainera, faktore indibidualak eta testuingurukoak hartuko dira kontuan (sozioekonomikoak, kulturalak eta hizkuntzakoak). Proba diagnostikoen emaitzak ez dira sartuko ikasleen ikasketa-espeditentean.
6. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeari (ISEI–IVEI) dagokio probak prestatzea eta aplikazio-, zuzenketa- eta aplikazio-irizpideak definitzea, institutu horrek formulatutako kon- tzeptu-esparruetatik abiatuta. Gainera, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak behar diren ereduak eta laguntzak emango dizkie ikastetxeei, ikastetxe guztiek behar bezala egin ahal izan ditzaten ebaluazio horiek.
7. Neurririk egokienak ezarriko dira ebaluazio horiek berariazko hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleen beharretara egokitu daitezen.